

DIRUA ITZULTZEKO BERMEAREN KONTRATAZIOA

Inskripzioa egin duzula lasterketara joaterik ez baduzu, Donostiako Zurich Maratoiaren antolatzaileek aukera ematen dizute inskripzioko dirua itzultzea bermatzeko. Horretarako, dirua Itzultzeko Bermea kontratatu behar duzu, formularioaren bitartez.

Zerbitzua kontratatu baldin baduzu eta lasterketan baja eman beharra gertatzen bazaizu, azaroaren 1eko 18:00ak arte (Espainiako ordua) izango duzu denbora. Data horretatik azaroaren 14ra arte, hurrengo edizioan gordetzeko aukera eskaintzen da.

2021eko azaroaren 1eko 18:01etik aurrera (Espainiako ordua) egindako inskripzio ezerezteek ez dute inolako itzulketa eskubiderik izango.

NOLA ESKATU ITZULTZEKO BERMEA?

GARRANTZITSUA: Erregistroa egiten den egun berean kontratatu beharko da bermea.

Ez da erregistroa kudeatu ondorengo kontrataziorik onartuko.

Bermea kontratatzeke, ST bitartez egin beharko da ordainketa, inskripzio formulariotik.

BERMEAREN OINARRIZKO ARAUAK

Berme hau bere izenean sinatzen duen parte hartzaileak honako hau irakurri eta onartu duela adierazten du:

Lehena.- Bermea erregistroaren egun berean eta une berean baino ezingo da kontratatu. Ez da erregistroa formalizatu ondorengo bermerik onartuko. Bermea ST bitartez ordainduko da.

Bigarrena.- Antolakuntzak ordaindu egingo ditu parte hartzaileak inskripzioa baliogabetzeko unera arte ordaindutako zenbatekoak, baina bakarrik inskripzio kontzeptukoak eta inskripzio formularioaren bitartez eskuratutako osagarriei dagozkienak. Bermearen zenbatekoa ezin da itzuli, ezta erositako bidaia-paketea ere (hotela, hegaldiak, etab.).

Hirugarrena.- Bermeak erregistroaren unetik (aurrez ordainketa egiaztatuta) 2021eko azaroaren 1eko 18:00ak arte iraungo du. Data horretatik azaroaren 14ra arte, hurrengo edizioan gordetzeko aukera eskaintzen da.

Laugarrena.- Parte hartzaileak ST bitartez ordainduko du, inskripzio formulariotik, erregistroaren egun berean.

Bosgarrena.- Ez da lehen edo laugarren puntua betetzen ez duen inolako bermerik onartuko.

Seigarrena.- Baliogabetze prozesua gauzatzeko, parte hartzaileak mezu elektronikoa bidali beharko dio antolakuntzari (info@zurichmaratonsansebastian.com), baja emanez aditzera.

GARRANTZITSUA: ordaindutako zenbatekoa ordainketa-sistema beraren bidez itzuliko da, hau da, ordainketa egiteko erabili zen txarteleko kontuan ordainduko da dirua, bermearen zenbatekoa izan ezik.